



<b>ahitu</b> amaitu	« <b>Ahitu</b> zaio zigarroa eta botatzen du airera.»	(15)
<b>ahogorri</b> lotsabakoa	«...inoren galdera <b>ahogorririk</b> eta adarjotze alurik gabe.»	(103)
<b>ahuldade</b> makaltasuna	«... <b>ahuldadea</b> iruditzen zait, kontrarioari kartak erakustea bezala.»	(25)
<b>aitatu</b> aipatu	«Sekula <b>aitatzen</b> ez dena baina beti present dagoena.»	(28)
<b>akain</b> kapar handia	«...bartzanga!, <b>akaina!</b> aitonari ikasiak nizkion gehienak...»	(166)
<b>aldarri</b> oihua	«...letra goriz idatzitako <i>Trafikanteak, hormara!</i> <b>aldarriak.</b> »	(107)
<b>amaraun</b> armiarma edo aramu sarea	«Euli koitadu bat nintzen, hariak ikusten ez ninzkion <b>amaraun</b> bihuri batean harrapaturik.»	(121)
<b>antxumatu</b> inurritu	«Besoak <b>antxumatuta</b> , atzera-aurrera laburrak egiten ditu nire aurrean; urduri jartzen nau.»	(116)
<b>antzu</b> bizitza sortzeko gai ez dena	«... <b>antzu</b> eta tristea irizten bainion ikasketen garain ezagutu nituen hainbat irakasleren jardun errutinazkoari.»	(35)
<b>ardaila</b> aho hots gogorra, ahapatsa	«Gainera, gero eta ozenago den <b>ardaila</b> horrek ez du festa-zalapartaren trazarik.»	(178)
<b>argi-inarri</b> errainua	«...ikasketa burua ikusi nuen ate zabaldu berriko <b>argi-inarri</b> hits baten erdian, nitaz galdezka.»	(112)
<b>armagnac</b> likore mota bat	«Gau hartan, elkarrekin afaldu genuen eta kopa beretik edan genuen <b>armagnaca.</b> »	(36)
<b>arrimu</b> laguntza	«...aita noiz etorriko dago, nire trantze txarra elkarren <b>arrimuan</b> hobeto eramango duelakoan.»	(31)
<b>arrunkeria</b> zabarkeria	« <b>Arrunkeria</b> bat esateko gogoia irentsi, eta presa dudala esaten diot.»	(132)
<b>artagabe</b> ardura barik	«Haren ibilera <b>artagabea</b> zen, inora iristeko axolarik ez duen horietakoa.»	(114)
<b>atezuan egon</b> erne egon, tentsioan	«Andereñoak ez du xehetasunik galtzen, <b>atezuan dago</b> beti bezala.»	(169)
<b>atximurkada</b> txatxamurkada	«Urdaileko mina, bat-bateko <b>atximurkada</b> batek ziztatuta: hamabi ordu dira hilketa gertatu denetik...»	(88)
<b>balditu</b> elbarritu	«Une hartan burutazio batek <b>balditu</b> ninduen: eta hiltzailea ezagutu zuelako baldin bazegoen Abel hain harriturik?»	(118)
<b>barreiatu</b> zabaldu, hedatu	«Leihorantz begiratzen dut, gela osoan ia kolpean <b>barreiatu</b> den argitasunaz harrituta.»	(108)
<b>bartzanga</b> sakutea, birao mota	«... <b>bartzanga!</b> , akaina! aitonari ikasiak nizkion gehienak...»	(166)
<b>begitandu</b> iruditu	«Ama <b>begitantzen</b> zait gortinen atzetik begira.»	(96)
<b>beita</b> amuzkia	«Niri <b>beita</b> ematen ari zara, besterik ez: beharrezkoa nauzu egunkariko zuzendariaren aurrean presioa egiteko.»	(93)
<b>belarro</b> ?	«Atzokoak ez din bueltarik, eta eskerrak, <b>belarro</b> horrek ondo merezia zinan eta.»	(131)
<b>birao</b> madarikazioa	«Eztandak, tiro hotsak, <b>biraoak.</b> »	(125)



<b>brastakoan</b> bat-batean	« <b>Brastakoan</b> , klaseen arteko atsedena iragartzen duen txirrinararen iskanbila entzun dut.»	(125)
<b>burkoa</b> ohean burua atsedeitekoa	« <b>Burkoa</b> tolestu, eta haren kontra jarrita esertzen naiz.»	(71)
<b>deontologia</b> arau moralen teoria	«Tupustean, argazkilariaren <b>deontologia</b> pitzadurarik gabearen berri ematen hasten zaigu...»	(159)
<b>destaina</b> mespretxua, gutxiespena	«...ezpainak estuturik, galtzerdia botatzen zuen nire ohe gainera <b>destainazko</b> keinu lehor batez.»	(30)
<b>deus</b> ezer	«Nekatuta nago, ez dut <b>deusetarako</b> adorerik.»	(46)
<b>diosal</b> agurra	«Oihuak eta <b>diosalak</b> , bezperan telebistan emandako programaren bati buruzko esamesak...»	(103)
<b>eite</b> itxura	«Hark irakurrita, poema gaitzenak ere beste <b>eite</b> bat hartzen du, ulergarri bihurtzen du.»	(110)
<b>ele</b> berba	« <b>Elea</b> bero hasten dira ertzainak, atzera!»	(14)
<b>erauzi</b> botarazi	«Ipar zuriak zerutik <b>erauzia</b> du hezetasan eta lanbro gehiena...»	(145)
<b>erretxindu</b> haserretu	«Betikoa!, <b>erretxindutzen</b> naiz neure baitan.»	(24)
<b>errezel</b> kortina	«...leihora begiratzen dut, eta <b>errezelen</b> atzean norbait dagoela iruditzen zait.»	(24)
<b>eskumen</b> eskuera, hurbil	«...eta kolpea saihesteko, esku bat luzatzen du <b>eskumenean</b> duen helduleku bakarrerantz...»	(11)
<b>estore</b> kortina, errezela	« <b>Estorea</b> jaitsiko duen galdetzen digu <i>maitreak</i> .»	(150)
<b>ezain</b> itsusia	«...aberats-berri kutsuko dekorazio dotore-uste <b>ezaineko</b> bulego bateraino eraman gintuen.»	(157)
<b>ezkaratza</b> sukaldea	«Hala ere, eskailerak eta <b>ezkaratza</b> , beti bezala, erdi ilunpetan, argi kaskarra egiten baitzuen bonbilla ilaun bakartiak.»	(7)
<b>ezmez</b> zalantza	« <b>Ezmezean</b> zegoen aita, begiak ezker-ezkuin mugitzen zitzaizkiolarik argibideren baten bila.»	(48)
<b>gaitzitu</b> txarto iruditu	«Aita urduri jartzen da, bistan da nire hitzak <b>gaitzitu</b> zaizkiola.»	(152)
<b>galai</b> gizon dotorea	«...Casanovarenak baino enkontru <b>galaiago</b> bilakatzen ziren haren hitz irudimentsuetan.»	(146)
<b>galga</b> neurria, maila	«Gaztea nintzen, susmagarria nintzen, <b>galga</b> berean zeuden biak.»	(122)
<b>gandu</b> lanbroa	«...itsasoko <b>gandu</b> berriak ontziak ezkututzen dituen bezala.»	(180)
<b>garondo</b> lepondoa	«Haren hatsaren beroa <b>garondoan</b> berriro; amaren ileak sudurra kilikatzen dit.»	(27)
<b>gernu</b> txiza	«Eguzkiak berotzen zuenean, <b>gernu</b> usain jasanezina iristen zen txabola ingurutik.»	(167)
<b>goritu</b> bero-bero eginda	«Galdeketa daraman ertzainak betazalak igurzten ditu, begiak zigarro-ketan <b>gorituak</b> baititu.»	(119)
<b>hausnar</b> pentsatu	«...jartzen nintzen nire barne-mugimenduen aitarenganako eta amarenganako desberdintasunen <b>hausnarrean</b> .»	(50)



<b>hesola</b> egurrezko hesia	«Ia ordu erdi igarota, <b>hesola</b> bat ematen zuen gona gorri motzeko neska bat agertu zitzaigun...»	(157)
<b>higuingarri</b> antojagarria	«...ertzainaren jarrera adeitsu nahia eta iragarki-irribarrea gero eta <b>higuingarriagoak</b> zitzaizkidan...»	(118)
<b>hutsal</b> balio bakoa	«Edozein, baita <b>hutsalena</b> dirudiena ere.»	(118)
<b>ilaun</b> mengela, galkorra	«Hala ere, eskailerak eta ezkaratza, beti bezala, erdi ilunpetan, argi kaskarra egiten baitzuen bonbilla <b>ilaun</b> bakartiak.»	(7)
<b>iltzatu</b> iltzez josia	«...begiak testuan <b>iltzaturik</b> eta arkatza eskuan...»	(107)
<b>itsumustuan</b> tupustean	«Bertso bat azpimarratzen dut, <b>itsumustuan</b> , zertan ari naizen begiratu gabe.»	(108)
<b>izpiliku</b> belar mota usaintsua	«Begiak ixten ditut, <b>izpiliku</b> -usainaz gozatzeko.»	(78)
<b>juzku</b> epaia	«Pertzepzioaren eta <b>juzkuaren</b> ahalmenak estaliak bazituzten...»	(123)
<b>kalaka</b> berbaldia	«...bere eskolak institutu onenetakoak ziren, edanak eragindako <b>kalaka</b> totel-motel eta guzti.»	(99)
<b>kar-kar-kar</b> barrearen onomatopeia	«... <b>kar-kar-kar</b> , orain argazkilari moduan mozorroturik orain ertzain gisa...»	(122)
<b>karranpa</b> kalanbrea	«... <b>karranpa</b> batek jota baino agudoago.»	(56)
<b>kaskail</b> baldarra	«amorru handiagoz esaten nuen, isilean baina garrasika: txepela!, <b>kaskaila!</b> , zakatza!...»	(166)
<b>kilima</b> kili-kilia	«Okinak eskua jaso didanean bezalako <b>kilima</b> .»	(103)
<b>kilimusi</b> keinua	«Batek <b>kilimusi</b> , besteak oihu, denak batera ari zaizkit.»	(103)
<b>kinkun</b> sudurkari	«Halatan, sudur-ahots <b>kinkun</b> bat nagusitzen da nire atzeko jardun burrunbarian.»	(18)
<b>kitzikatu</b> aztoratu	«Iggy Pop erekin maiteminduta nengoen, eta ikaragarri <b>kitzikatzen</b> ninduen pianoz lagun niezaiokeela pentsatzeak.»	(106)
<b>kontrakar</b> aurka eginez	«...eskuina baldartu egiten baitzait eta <b>kontrakarrean</b> segitzen baitio ezkerari.»	(8)
<b>kurrixka</b> negarraldia	«Hiltzailearen autoa gurpilen <b>kurrixkaz</b> airea erre beharrean sentitu nuenean ere, ni ez nintzen jiratu.»	(124)
<b>labezomorro</b> labatxoria, (cucaracha)	«...etxe zahar hutsean <b>labezomorroak</b> paretu zuloetatik ateratzen diren gisan.»	(14)
<b>laborri</b> izua	« <b>Laborrizko</b> gauaren presondegian duzuelarik...»	(111)
<b>lakain</b> arrastoa, lorratza	«Aurpegi meharra; bibote- <b>lakain</b> mehe-mehe horietakoa, tabakoak horitua...»	(156)
<b>lanpa-argi</b> lanparetako argia	« <b>Lanpa-argiak</b> erakarritako zomorroak ematen dute...»	(174)
<b>lanpas</b> ateetan jartzen den oihala	«Oinetako azpiak igurzten ditut ate aurreko <b>lanpasean</b> .»	(25)
<b>lerde-pertz</b> listuz betetako ontzia	«Zer dira ba <b>lerde-pertzak!</b> »	(98)



<b>liztor</b> intsektu mota	«Euri usaina zerion ilunabarrari, hodei goibelez zegoen zerua belzturik eta <b>liztor</b> haserretuaren soinua egiten zuen haizeak...»	(10)
<b>loki</b> burezurraren alboko hezurra	«...lepoa gorri-gorri jartzen zitzaion, eta <b>lokiko</b> zainak, beriz, lehertu egingo zitzaizkiola ematen zuen.»	(108)
<b>mainatu</b> trebea	«Zein dotorea ni bezalako alaba bakar –eta <b>mainatu</b> – batentzat pianoa jotzen ikastea!»	(58)
<b>makulu</b> herrenak ibiltzeko makila	«...zaila da asmatzen nor noren <b>makulu</b> den.»	(174)
<b>malgor</b> motela	«...beldurtu orde, oldartu egiten ninduen. Saldua!, <b>malgorra!</b> , txaranda!»	(166)
<b>marguldu</b> zurbildu	«...baina ez nekien tiroen eraginez <b>marguldu</b> zitzaion aurpegia, ala berezkoa zuen begitarte argizarizkoa.»	(17)
<b>marranta</b> sudurrestua, katarroa	«Eztula egiten du, <b>marrantak</b> jota dago.»	(98)
<b>marruskatu</b> mazkildu	«Malkoak lehortu eta musuzapia <b>marruskatzen</b> hasi nintzen, kabitu ezinez.»	(27)
<b>mataza</b> artilezko pilota	«...baina ezin dute <b>mataza</b> osorik osatu...»	(147)
<b>mehar</b> argala, estua	«Aurpegi <b>meharra</b> ; bibote-lakain mehe-mehe horietakoa, tabakoak horitua...»	(156)
<b>mengel</b> ahula, indarbakoa	«...baina ez da konturaten hizketarako modu <b>mengel</b> horixe egiten zaidala eramangaitzena.»	(95)
<b>moila</b> kaia	«Hurbil samar izan dira. <b>Moila</b> aldean edo. Ospakizunen bat izango da, eta lasaitu egiten naiz.»	(69)
<b>mutxikin</b> hondakina	« <b>Mutxikinak</b> , behea jotzean, txinparta txiki batzuk ateratzen ditu.»	(15)
<b>narda</b> nazka	«Horixe bakarrik falta zaio nire barren txarrari: aitaren kezka <b>narda</b> .»	(133)
<b>nasai</b> zabala	«Argaldu egin zara azken boladan, eta beldur nintzen ez ote zitzaizun <b>nasaiegi</b> geldituko.»	(32)
<b>neure kautan</b> neure barrurako	«Barre egiten dut <b>neure kautan</b> , soinekoa probatu dudala esango banio...»	(150)
<b>ninderabilten</b> erabiltzen ninduten	«...ertzainek... batera eta bestera <b>ninderabilten</b> nitaz axola gabe.»	(121)
<b>okagarri</b> arbuiagarri, botaka egitekoa	«Neska baten xalotasuna eta krimen <b>okagarri</b> baten aurpegia kontrajarri genituen...»	(062)
<b>oldoztu</b> pentsatu, hausnartu	«Ez zuen askorik iraun nire bakardadeak eta <b>oldozteak</b> :...»	(17)
<b>onetsi</b> onartu	«Ertzainek buru-mugimenduak eginez <b>onesten</b> dituzte ikasketa-buruaren hitzak.»	(115)
<b>orban</b> zikinunea	«Ez dakit zenbat denbora egin nuen gorpuaren aurrean, odolak zoruan utzitako <b>orbanari</b> begira...»	(13)
<b>orbel</b> hil eta eroritako hostoa	«... <b>orbel</b> ugari zegoen pilatuta belartzetan eta zidoretan...»	(141)
<b>orgatxo</b> gurditxoa	«...auto handiaren atzeko aldea zabaldu eta <b>orgatxo</b> metaliko bat ateratzen du.»	(174)
<b>otzandu</b> mantsotu	«Atertu du, <b>otzandu</b> da eguraldia eta, laino artetik kukuka hasi eta gero, eguzkia nagusitzen ari da.»	(108)



<b>ozta-ozta</b> doi-doi	« <b>Ozta-ozta</b> ordaintzen nituen neure gastuak, baina ez nuen gurasoen laguntzarik nahi.»	(36)
<b>partitu</b> banatu, konpartitu	«Ez nuen ikusitakoa inorekin <b>partitzeko</b> ez kemenik ez barrenik.»	(25)
<b>pentze</b> larrea	«...kamino malkartsu batetik, eta ugalduz joan ziren <b>pentzeak</b> eta lursail landuak.»	(144)
<b>peto</b> erabatekoa	«...ikasle saiatua eta kirolzale aparta; lider <b>petoa</b> .»	(129)
<b>piko</b> zorrotza	«Ene burua, amildegi <b>piko</b> baten aurrean.»	(26)
<b>pinpirin</b> liraina	«...esan zuen bere <b>pinpirin</b> itxuraren guztiz kontrako ahots petral batez...»	(105)
<b>pitzadura</b> arrakala	«Tupustean, argazkilariaren deontologia <b>pitzadurarik</b> gabearen berri ematen hasten zaigu...»	(159)
<b>sare-sare</b> astiro-astiro	«Euria <b>sare-sare</b> hasi zuen. Informalaren txanoa jantzi, eta lasterka txikian iritsi nintzen...»	(103)
<b>segail</b> dotorea	«Hurbiltzen da argazkilari bat ere, <b>segaila</b> eta moderno itxurakoa...»	(15)
<b>sigi-saga</b> zeiharka-meharka	«Muino gaina atzean utzi, eta errepideak <b>sigi-saga</b> asko egiten zuen gune batean behera gindoazen.»	(148)
<b>sordina</b> doinua itotzeko tresna	«Erraza da jotzen ari naizen pieza, eta ez diot <b>sordinaren</b> pedalari eman behar sukaldeko jarduna entzuteko.»	(66)
<b>tenkatu</b> tiratu, tentsatu	«Goma <b>tenkatzen</b> du.»	(128)
<b>tiradera</b> kaxoia	« <b>Tiradera</b> galduren batean gordeta behar duen argazki zahar bat gogoratu nahi izaten dugunean bezala...»	(16)
<b>trantze</b> egoera	«Pentsatzen ari naiz nola aterako naizen <b>trantzetik</b> .»	(130)
<b>trenpe</b> parada	«...nire karrerari kalte baino on gehiago ekarri zion tentsiorik gabeko <b>trenpe</b> espirituala.»	(37)
<b>trenpu</b> itxura egokia	«Aitak, aldiz, ez zuen ez <b>trenpua</b> ez neurria galtzen...»	(160)
<b>txaranda</b> kokoloa	«...beldurtu orde, oldartu egiten ninduen. Saldua!, malgorra!, <b>Txaranda!</b> »	(166)
<b>txeratsu</b> zorrotza	«Egunkariko argazkiak egin ditu hain <b>txeratsu</b> .»	(135)
<b>txiripa</b> zorte oneko une laburra	«... <b>txiripa</b> hutsa izan zen argazkiarena eta zu han tokatzearena, entzun?»	(95)
<b>txoraize</b> ero hutsa	« <b>Txoraize</b> horrek niri deitu behar zidan, ertzainekin sinpatikoarena egiten ibili ordezl!»	(143)
<b>uzkur</b> goibela, bakartia	«...urte gutxi zeramatzan herrian; <b>uzkurra</b> , isila, ez omen zuen lagunik...»	(17)
<b>xalo</b> maitagarria	« <b>Xaloa</b> omen naiz, bihotz onekoa, edozeinekin fidatzen naizena...»	(45)
<b>xargal</b> ?	«Kabinako atea zabaltzera noalarik, mutil aurpegi- <b>xargal</b> bat ikusten dut kristalaren bestaldean...»	(127)
<b>zabuka</b> kulunka, alderoka	«Argi-errainuaren bihotzean, hauts-izpiak airean <b>zabuka</b> .»	(108)



<b>zakatz</b> istiluzalea	«...amorru handiagoz esaten nuen, isilean baina garrasika: txepela!, kaskaila!, <b>zakatza!</b> ...»	(166)
<b>zidor</b> bidexka	«...orbel ugari zegoen pilatuta belartzetan eta <b>zidorretan</b> ...»	(141)
<b>zimiko</b> txatxamurkada	«Harridurak <b>zimiko</b> egiten dit, irakaslearen asmoaz jabetu bainaiz bat-batean...»	(110)
<b>zinkurinka</b> arrenkura	«Eskaileretan behera noala, ama sentitzen dut etxeko atean, <b>zinkurinka</b> .»	(96)
<b>zipitz ere</b> tutik ere	«Ez diat deus kontatuko, ez huke <b>zipitzik ere</b> ulertuko.»	(40)
<b>zirimola</b> zurrunbiloa	«Haizea trumilka dator etxe arteetatik: plastikoak, harea, hosto ihartuak <b>zirimola</b> eroan.»	(12)
<b>zirkin</b> mugimendu txikia	«...eta <b>zirkin</b> zakarrak egiten ari da etengabe, goardia zibilei begira.»	(98)
<b>zirto</b> ateraldia	«...bai amaren kontrako <b>zirto</b> gaiztakeriarik gabeak beren horretan hartuz...»	(151)
<b>zokor-mazo</b> tontolapikoa	«Izu klase horren eraginez erori ziren aita eta bere lagunak <b>zokor-mazo</b> haien amarruan.»	(125)
<b>zola</b> zolua	«Gure oinetakoen hotsa entzuten zen: larruzko <b>zolaren</b> tak-tak lehorra ikasketa-buruarenak, gomaren txirri-txirria nireak.»	(114)
<b>zoli</b> trebea eta bizkorra	«Ahots <b>zoliz</b> irakurtzen du, ondo modulatu, eta ez zaio arnasa-hotsik entzuten etentxoak egiterakoan.»	(110)
<b>zuritu</b> azaldu, justifikatu	«Baina gauza batek bakarrik <b>zuritzen</b> du, ezerk zuritzekotan...»	(43)
<b>zurtu</b> harritu	«Nahastuta nengoen, <b>zurturea</b> , nora ezaren ezaz.»	(117)